

HIRUGARREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 maila

AHOZKO AZTERKETA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Lehenengo ariketa aldeztatik aurretik prestatu behar duzu.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

MINTZAMEN-PROBA Probaren ezaugarriak	Aurreikusitako denbora	Puntuazioa gehienez	Puntuazioa gutxienez
<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Ez da ebaluatuko. ■ Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du. (Nor/ NANA/nongoa/lana). <p>1. ariketa: Bakarka.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Aldez aurretik prestatuko duzun gai bat azaldu behar duzu. Gero, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek. ■ Gaia, hari buruzko argazkiak, informazio laburra eta galderak edukiko dituzu azalpena bideratzeko. ■ Denbora: 4 min. azalpena egiteko eta 1 min. aztertzailearen galderei erantzuteko. ■ Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. ■ 15 puntu. <p>2. ariketa: Azterketarien arteko elkarrizketa.</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. ■ Helburua iritzia trukatzea, argumentatzea, eta eztabaidatzea da. ■ Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarrizketan aritzeko. ■ 15 puntu. 	<p>35-40 min.</p> <p>(15 min. gaia prestatzeko dira)</p>	<p>30</p>	<p>15</p>

3. HE

(A fitxa)

MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Azaldu gaia eta eman zure iritzia.
 - 15 min. dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min. dituzu azalpena egiteko.
 - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarria, zuzentasuna eta aberastasuna.

“EUSKAL” JANZKERA?

Euskaldunak, gauza jakina da, mendizaleak gara, salbuespenak salbuespen. Mendizaletasunak nortasuna eta ohorea ematen dio euskal jendeari. Eta estiloa ere bai. Arropak aukeratzeko behintzat. Izan ere, azken urteetan euskaldun asko mendira irtetear egongo balitz bezala jantzita ibili ohi da kalean. Alegia, mendiko jantziek, batez ere mendiko prakek, kaleko giza paisaia aldatu dute. Halako eragina izan dute, ezen Euskal Herriatik kanpotik datozenak harrizera ere iritsi baitira kaleetan ikusi duten mendiko praken ugaritasunaz.

Garestiagoak edo merkeagoak, mendiko prakak ikusten dira igande goizean egunkaria erostera joaterakoan, lantokietan, lantegian zein bulego publikoetan, ikasgeletan, umeekin kalean paseatzean, tragoak hartzean goiz, ilunabar zein gauean; herrietako eguneroko paisaia estilistikoan txertatu dira mendira joateko pentsatuta zeuden prakak.

Sustatu.com. 2009ko azaroa. Egokitua

Aurreko larunbatean Hatortxurock Jaialdira joan nintzen. Leihotik mara-mara ikusten nuen elurraren beldur, leporaino babestuta atera nintzen etxetik: botak, jertsea, bufanda, berokia... Ez zen aparteko berokia, neguan jantzi ohi dudana: artilezkoa, luzea, beltza. Duela urte batzuk merkealdian erosi nuen 80 euroren truke. Ez pentsa berokiaren deskribaketa soberan dagoenik; sei bat lagunek zer edo zer esan zidaten horren kontura. «Joe, ezkontza-arropa etxean utzi dut nik»; «e, kontzertu batera zatoz, gero»; eta abar.

Urteak daramatzat antzeko pitokeriak agoantatzen; hala ere, lehen horrelakoak botatzen zituen jendea Monimboren uniforme guatemalartetik Trango-Ternua-Astore hirutasun santura mudatu da, eta ez dakit nik zer den okerrago. Zeren jende hori kutxazain begiekin aztertzen hasi nintzenean: Boreal mendi-botak, 150€; Trango Gore-Tex zira, 160€; Ternua jertse termikoa, 140€; The North Face txaleko polarra, 100€...

SOTO, M. Gaur8. 2010eko urtarrila. Egokitua



- Zer adierazten edo erakusten dugu gure janzkeraren bidez?
- Egia al da euskaldunak janzkeragatik ezagutu ditzakegula?
- Nolako gorabeherak izan dira janzkeran azken urteetan?
- Zenbateraino eragiten digute janzteko modek?

3. HE

(B fitxa)

MINTZAMENA

- **1. ariketa:** Azaldu gaia eta eman zure iritzia.
 - 15 min. dituzu gaiaren azalpena prestatzeko. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak, informazioa eta gidoi bat. Gero, 4 min. dituzu azalpena egiteko.
 - Amaieran, beste azterketariari entzundako azalpenari buruz galderaren bat egingo dizute aztertzaileek.

Kontuan hartuko dugu:

- gaiari heldu diozun,
- esaten duzuna ulergarria den,
- euskara nola erabiltzen duzun: jarria, zuzentasuna eta aberastasuna.

SEME-ALABAK: AITAREN EDO AMAREN ABIZENA?

Iragan astetik, Erregistro Zibilaren Lege proiektua Espainiako Kongresuan dago, tramitean. Zeresan handiena eman duen atala abizen sistemaren erreformaren ingurukoa da. Proiektua lege bihurtzen bada, aitaren abizenak lehentasunezkoa izateari utziko dio; beraz, bikoteek beti zehaztu beharko dute zein gurasoren abizena jarriko dioten umeari – zehazten ez duten kasuetan, edota desadostasuna badago, irizpidea alfabetoaren arabera ezartzea proposatu du Espainiako Gobernuak–.

«Emakumea, beste arloetan bezala, familian ere itzalean egon da», dio Izaskun Guarrotxenak, Bilgune Feministako kideak. «Deiturak zehazteko beharrezkin, bikote heterosexualek gaiari buruz pentsatu beharko dute, behintzat».

Berria, 2010eko azaroa. Egokitua



Espainiako Kongresuan tramitean dago proposamena, eta jadanik atera zaizkio kontrarioak. Mariano Raxoi PPko buruak “borroka” iragarri du egitasmoaren aurka. “Eztabaida hau ez da beharrezkoa, ez da espainiarren lehentasuna”, esan du PPK.

Egungo egoera hain da absurdoa, ezen ezkonduko bi gizonak erabaki dezakete adopzioz hartutako seme-alaben abizenen ordena. Ama batek, aldiz, ez du aukera bera izango aita berarekin ados ez badago.

Emakumeak ikusiezin egin ditu sistema patriarkalak. Eta ikusten ez dena ez da. Historiaren joera irauli eta gauzak beste era batera egiteko garaia ez al da, bada, iritsi? Ez al da bidezkoagoa urrats bat gehiago eman eta beste hau proposatzea: haurraz erditzen denaren abizenak izan behar duela lehentasuna, amak bestelakoa esaten ez duen bitartean.

PETXARROMAN, I. *Berria*, 2010eko azaroa.



- Zertan datza erreforma? Zer deritzozu Petxarromanen proposamenari?
- Zergatik izan du orain arte lehentasuna aitaren abizenak?
- Zer iruditzen zaizkizu horrelako neurriak? Lagunduko al dute berdintasuna lortzen?
- Neurri horrekin abizen batzuk ez ote dira desagertuko?

3. HE

(aztertzailea)

MINTZAMENA

- **2. ariketa:** Gaiaren inguruko eztabaida egingo dugu orain.
 - Gai baten inguruko 2 fitxa banatuko zaizkizue: gai beraren inguruko bi ikuspuntu, kontrajarriak, bakoitzak berea defenda dezan. Horretarako, laguntza gisa ematen dizkizugu gaiaren inguruko argazkiak eta informazioa.
 - Helburua: iritzia trukatzea, argumentatzea eta eztabaidatzea.
 - Denbora: 1min. fitxa begiratzeko, eta 10 min. elkarriketan aritzeko.

Kontuan hartuko dugu:

- elkarriketan zenbat/nola parte hartzen duzuen,
- esaten duzuen ulergarria den eta zelan arrazoitzen duzuen,
- euskara nola erabiltzen duzuen: jarrioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

(A fitxa)

SAKELAKO TELEFONOA BEHAR-BEHARREZKOA DA



- Ba al dago gaur egun sakelakorik ez duenik? **Ezinbestekoa** da!
- **Edozein unetan** eta ia **edonon** jar gaitezke harremanetan ia **jende guztiarekin**.
- Beste **hainbat funtzio** ere badauzka: irratia, kamera, ordenagailua, GPSa...
- **Larrialdietan** erabakigarria izan daiteke.
- **Merkea** ere bada ematen duen zerbitzurako.

(B fitxa)

SAKELAKORIK GABE, ASKOZ ERE HOBETO



- **Mendekotasuna** eragiten du; behin ohituta, **ezin gara inora joan** telefonorik gabe.
- Lotura handia da, **ez zara libre** inoiz. **Edonon aurkituko** zaituztete, baita **nahi ez** baduzu ere.
- Azkenean, **behar ez dugun gauzarako ere** erabiltzen dugu.
- Ba al du **ondoriorik**, osasunerako? Ondo aztertuta al dago **eraginik** duen?
- Ez ote da **garestiegia**?

SAKELAKO TELEFONOA BEHAR-BEHARREZKOA DA



-
- Ba al dago gaur egun sakelakorik ez duenik? **Ezinbestekoa** da!
 - **Edozein unetan** eta ia **edonon** jar gaitzke harremanetan ia **jende guztiarekin**.
 - Beste **hainbat funtzio** ere badauzka: irratia, kamera, ordenagailua, GPSa...
 - **Larrialdietan** erabakigarria izan daiteke.
 - **Merkea** ere bada ematen duen zerbitzurako.

SAKELAKORIK GABE, ASKOZ ERE HOBETO



-
- **Mendekotasuna** eragiten du; behin ohituta, **ezin gara inora joan** telefonorik gabe.
 - Lotura handia da, **ez zara libre** inoiz. **Edonon aurkituko** zaituztete, baita **nahi ez** baduzu ere.
 - Azkenean, **behar ez dugun gauzetarako ere** erabiltzen dugu.
 - Ba al du **ondoriorik**, osasunerako? Ondo aztertuta al dago **eraginik** duen?
 - Ez ote da **garestiegia**?